

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Interprete Gazteen III. zikloko bosgarren kontzertua Fernando Remacha Auditoriumean

*Ostegun honetan eskainiko den musikari gazteen entzunaldiko sarrera doakoa izango da*

Asteartea, 2018.eko otsailak 20

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko laugarren mailako ikasleek eskainitako [Gazte Interpreteen III zikloko](#) bosgarren kontzertua izango da ostegun honetan, otsailak 22, Iruñeko Fernando Remacha Auditoriumean, arratsaldeko 19:30etan. Aste honetako kontzertuan Eduardo Gil tubajolea, Rubén Amatriain gitarrajolea, Jaime Miguel perkusionista eta Javier Yera biolontxelojolea izango dira eskenatokira igoko diren musikari gazteak.

Kontzertu hau otsaila hasieran abiatutako eta apirilean amaituko den Interprete Gazteen hirugarren zikloaren barruan kokatzen da. Bertan Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko laugarren mailako ikasleek ikasturtearen amaieran eskainiko duten kontzertuaren aurrerapen bat eskainiko dute.

Fernando Remacha Auditoriumera (Musikaren hiria, Perez Goyena Pasealekua) ostegun honetako kontzertura gerturatuko direnek, bestek beste, T. Albioni, D. Gillingham, J. Delécluse, R. Schuman zein J. Brahms autoreek tuba, gitarra, perkusioa zein biolontxelorako prestatutako hainbat pieza entzuteko aukera izango dute.



Jaime Miguel (perkusionista), Eduardo Gil (tuba eta bombardinoa), Rubén Amatriain (gitarra) eta Javier Yera (biolontxeloa).